

MARGOTU ETA ESPRESA ZAITEZ (8-10)

Jarduera

Haurren sormena eta irudimena lantzeko tailerra. Marrazketa, formak eta koloreak erabiliz espresioa landu.

Deskribapena

Sormen eta espresio garapena haurrak bere lehen trazuak egiten dituen hasten da; forma desberdinak asmatzen ditu eta bere izaeraren ezaugarriak ezartzen ditu modu paregabe batean. Sormen ekintza hau garatzeko ezinbestekoa da haurrak lan egiterako orduan askatasuna izatea baina era berean irakasle sortzaile baten laguntza behar du. Artea oso garrantzitsua da haurrentzako, beraien kabuz lana egiten laguntzen die, pentsamendu abstraktua garatzen dute eta aukeraketak egiten eta arazoak konpontzen ikasten dute. Gainera komunikaziorako, hau da, espresatzeko trebetasuna garatzen dute.

Helburuak

- Haurren sormena eta trebeziak sustatzea.
- Hurrei artearen bidez espresatzeko baliabideak eman,
- Parte-hartze herrikoirako guneak sustatzea.

Programa

1. Hiruhilekoa

- Koloreak: oinarrizkoak eta nahasketak (azalpena eta ariketak).
- Koloreen arteko erlazioak: osagarriak, hotzak eta beroak (azalpena eta ariketak).

2. Hiruhilekoa

- Koloreekin bolumenak, lerroak, puntuak.
- Obraren adierazpen-indarra bere alderdi kromatikoetan, formaletan edo egiturazkoetan.
- Adierazpen figuratiboa eta abstraktua.

3. Hiruhilekoa

- Ikasitakoan oinarritutako gara norberak proiektu pertsonal bat garatzeko; zer espresatu nahi dugun eta nola burutu proiektua.

Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea

Nori zuzendua

Haurrak (8-10)

Ikasleak eraman beharreko materiala

Materiala apunteak hartzeko.